

# Noaia!!!



Areto Futbol Txapelketan izena emateko azken egunak



Datorren astean,  
Inauteriak!



**-%50**



**MAHUKA**  
arropa denda

erxebeste 3 943 361 106



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

**943 36 21 63**  
**660 388 652 - 608 16 77 92**

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- BEILATOKI GUZTIETAN zerbitzuak
- ERRAUSKETA eta errauts-kutzak
- Ospitale zentru eta egoitzetan zerbitzu
- ASEGURU konpaini GUZTIAK
- Lekualdaketak, eskelak...
- Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

nire aukerakoa



**Urtebete da bulegoa ireki genuenetik USURBILEN!**

**Eta "Merezi Duzu" nominarekin ospatuko dugu otsailaren 28artel!**

**"3 opari paregabe hauen artean hautatzeko aukera eskaintzen baitizu. Merezi duzulako!"**

<b>Netbook eramangarri txikia 10" ACER</b>	<b>Nintendo Wii konsola + Wii sports jokoak</b>	<b>LCD telebista 22" LG, LTDarekin</b>
		

**Sustapenean sartu ahal izateko eskakizunak:**

-Nominaren hileroko gutxieneko zenbateko garbia: 900€ -Nomina gutxienez 30 hilabete eduki behar da helbideratua. -Bat, bi edo hiru hilabeteko aldizkakotasuna duten hiru ordainagiri helbideratu behar dira, eta Rural Kutxaren txartel bat kontratatu behar da.

## Albistea iruditan !!

# Bazkide asko Gure Pakearen batzar nagusian

Azpmarratzeko moduko interes-piztu zuen Gure Pakea elkar-reak, pasa den urtarrilaren 29an burutu zuen ohiko batzar nagusiak. Bazkideez bete zen, Artzabalgo eraikineko bilera gela. Aretoa txiki geratu zen. 2009ko balantzea egin zuten, urte berri-rako proposamenen bilketa, baita bazkideen kexak eta iradokizunak jaso ere.

Bestalde, bazkietza kobratzeko garaia heldu da. Gure Pakeatik jakin-razi dutenez, aurten bazkietza banku bidez kobratuko da. Horregatik, elkar-tetik kontu korronteko hogeitazenba-kiak ahal bezain azkar Gure Pakeako Artzabalgo egoitzara eramatea eskatzen dute.



URTARRILAREN 29AN EGIN ZEN GURE PAKEA ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA ARTZABALEN.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordintzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. OR.

MINTZALAGUN EGITASMOA \_\_\_\_\_ 10. OR.

AGINAGAKO HERRI ESKOLA \_\_\_\_\_ 12. OR.

ARETO FUTBOL TXAPELKETA \_\_\_\_\_ 18. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**JOSETXO IKATZETA**



Iturgintza

TELF: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**BORDATXO**  
*edaritegia*

**PINTXO BEREZIAK**

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



**Obaba kalea 29 · ASTEASU**

**943 69 68 52 · 620 800 186**





AITOR LANDALUZE

## Klistenes

**K**listenes Usurbila etorri da. Tipo bitxia nola ez, azken finean 2500 urte eta gehiago ditu... Hasieran ez nuen sinesten; beste "ero" bat, pentsatu nuen. Ez baita oso normala gaur egun greziar tunika zuriaz kalean ibiltzea, gainera bizar eta buruko ileak luze bezain zuriak ditu. Badu bai, filosofo greziar itxura, baina Klistenes bera dela baieztatzea gehiegi iruditzen zait. Halere bitxiene greziar klasiakoaz mintzo dela eta institutuan Txaritok guri greziera irakasteko hartutako lanei etekina atera arren Klistenez delako xeble horrekin praktikak egiten ditut.

Agian izango da irakurlerik morroi hori zein kontxo izan zen ez dakienik, ba to, lehenengo estatista demokratizat jotzen dute. Orain 2500 urte inguru Atenasen. Berak kontatu didanez, diktadura, oligarkia, monarkia eta abarrek sortzen zituen tiraniaz asperturik esperimendu bat antolatu zuen eta begira, oraindik ere kontu horrekin gabiltza.

Dirudienez baten batzuk sikiera, estimuan hartu zuten eta Atenasko Agoran marmolezko estatua bihurtu zuten. Leku apropos horretatik Atenasko politika, Sokratesen irakaspenak, Platonen elkarrizketak eta Aristotelesen baieztapenak, lehen mailako entzule gisa jarraitu zituen. Baina ulertuko duzue 2500 urte asko dira leku batean egoteko eta aspaldian bidaia batean dabil, demokrazia non pizten den hara joaten da, argi hori mantendu nahian edo. Oraingoan Usurbil tokatu zaio. Jaso du berria, baten batek baimendu digula erabakia hartzea gurea den arazo baten aurrean. Hau ez zitzaion oso demokrata iruditu baina Klistenes bera minimoekin konforme da gaur egun.

Hasieran bost axola zion zer erabaki behar genuen, erabakitze gaitasunak soilik ematen dio *subidoia*, baina zer gauza, eguraldi petral hauek baliatu ditu herriko txokoetan paseatzeko, maindire txuri eta txankletekin, eta erabakitzeko gaitasuna ez duten beste usurbildarrek mintzatu da bere greziera klasikoan.

Eta Mintzatu da, hain lan polita egiten duten xixare, kakalardo eta txingurriekin, arbola eta loreekin, erreka mendi, ugaztun hegazti, baita narraztiekin ere. Arrainak ere ez ditu ahaztu eta... eta denak aho batez erantzun diote, beren izenean ere bozka dezagun eta ez gaitzela txorakeriekin inork engaina, errauskailurik ez dugu nahi ez eta behar ere. Atez atekoa da bidea! Eta kito!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Ugaitz Agirre - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Ika-mika!

### 28 zenbakia 82 bihurtu dugu

**E**ta bejondeizula Usurbil. Zeren, egia esan behar bada hori da herriko biztanleonean artean egin dugun iraulketa. Lehen, zaborraren %28 birziklatzen bazen, gaur egun %82 birziklatzera iritsi da Usurbil, eta horrek usurbildarron osasuna eta ingurumena hobetzen duela jakiteak eta horren epe (hiru edo bost hilabete) motzean egin dugula ikusteak poztu besterik ez nau egiten.

Gainera (orain arte bezala, Udalak lagundurik) emaitza horiek oraindik hobetu daitezkeela entzuteak bide beretik jarraitzea bultzatzen nau. Atez atekoak lortu duela ikusteak bide onean goazela adierazteaz gain, gaurko ekimenak ondo-

rengoztat onura besterik ez dakarrela adierazten dit.

Bai, aurka genitueni erakutsi egin diegu, oztupoak jarri eta jartzen dabiltzanei egunero ekimenean azaldu diegu, aurka genituenak ere gordintasunez ikusi behar izan dute egin daitekeela eta guztiak zur eta lur gelditu dira Usurbilgo herritarrok eman diegu herritarren erantzunarekin.

Zaborrari dagokionez beren instituzio ofizialek ere ziurtatu ondoren herriko emaitzak horiek direla ikusi behar izan dute. Beraz, osasuna eta ingurumena aberasteko herritarrok egin dugun ahalegina -apaltasunez baina ausart esanez- adibide izan da guztientzat eta onura besterik ez

herritarrontzat.

Eta nola ez, hau guztia etxe bakoitzean egin dugun ahaleginagatik. Aurka genitueni hau erakutsi badiegu herritarrok egin dugun lanari esker izan da, eta berriro ere, herri xeheak badakiela zer nahi duen plazaratu diegu guztiak.

Beraz, ez dezagun hurrengo erronka alferrik galtzen utzi eta sukalde sukalde egin dugun bezala, ahoz aho egiteari ekin eta otsailaren 27 eta 28 egunetarako bildu eta landuz biztanleonean osasunari bai esanez, ingurumena bultzatzea dezagun ondorengo bizikidetzara hobeago baten alde.

Orkatz\*

\* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

# Usurbiltzen Elkarteak, produktu ekologikoen zaletuen bilgune berria

**I**ragarri bezala, otsailaren 1ean produktu ekologikoen inguruan sortutako taldeak urrats berria eman zuen, elkarte bilakatuta. Bilguneak izena ere badu jada; Usurbiltzen Elkarteak.

Geroz eta partaide gehiago dituen bilgunea da, duela hilabete gutxi produktu ekologikoen inguruan herrian sortu zena. Bitartekaririk gabeko ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena bultzatu asmoz, oraindik zabalik jarraitzen duen otarren sistema martxan jarri zuten igaro den urtarrilaren 11n. Otsailan sartzearekin batera, talde izateari utzi dio bilguneak, elkartean bilakatzeko.

## Lehen urratsa, izenarena

Eguberrietan herriko saltoki eta dendetan herritarrek bilguneari izen bat proposatzeko aukera izan zuten.



ASTELEHENEAN ARTZABALEN BILDU ZIREN ETA ELKARTEAREN IZENA AUKERATU ZUTEN: USURBILTZEN.

Horien artean bat aukeratu zuen elkarte bilakatu berri den taldeak, otsailaren 1ean Artzabalen burutu zuen bilkuran. Usurbiltzen Elkarteak izango da aurrerantzean, produktu

ekologikoak bultzatzen jardungo duen herritar taldearen izena.

Elkarteko kideek hasi duten bidearen lehen urratsak dira hauek. Ez azkenak.

## Gurasoentzat hitzaldi interesgarria Zubietan

**Z**ubietako Eskola Txikiko guraso eta irakasleek antolatuta, Yolanda Gonzalez adituak hitzaldia emango du otsaila buketan, Zubietako Kaxkape lokalean.

“Amar sin miedo a malcriar”, hori da eskainiko duen hitzaldiaren izenburua; Eskola Txikiko zuzendariak gurasoei bereziki aholkatu nahi dien hitzaldia.

**Noiz:** otsailaren 23an asteartea, arratsaldeko 19:00etan.

**Non:** Kaxkapen, Zubietan.

**Hitzaldiaren izenburua:**

“Amar sin miedo a malcriar”.

## Luis Mari Ormaetxea eta Gipuzkoako beste batzarkide batzuk, Egunkariakoekin bat

**G**ipuzkoako Batzar Nagusietako bilkurak onartu bezala, astelehenean ordezkari bat izan zen Egunkaria auziko epaiketean, auzipetuei elkartasuna adierazi eta epaimahaiari auzia bidegabekoa dela adieraztera. Berria egunkariak aditzera eman zuten, “PPk izan ezik gainerako alderdi guztiek egin zuten bat ekimenarekin. Zehazki, Luis Mari Ormaetxea Mahaiko lehendakariordea eta Usurbilgo udal zinegotzia (Hamaikabat), Arantxa Gonzalez bigarren lehendakariordea (Ezker Batua), Arrate Albizu idazkaria (EAJ), Joseba Antxustegi EAJko batzarkidea eta Ander Rodriguez Alternatibakoa”.



LUIS MARI ORMAETXEA IZAN ZEN BATZAR NAGUSIEN BOZERAMALEA.

Javier Gomez Bermudez epaile buru duen epaimahaiarekin bilera egiteko aukera izan zuten ordezkariak kideek, eta adierazi zioten auziak ez duela oinarri juridikorik eta auzipetuek errugabetezko galdegin zioten.

SANTUENEA

ALEX TELLO

## Non paratzen zara?



**G**aldutako aukerak eskuratzeko bada atzera egiterik bidean urratsak eman ahala? Inprobisatu, ezen programaketak ez baitu balio. Bakarrik inon ez gaude. Ingurunekoaren baldintza saihestezina da. Bada ez bada, distantziak gorde eta bidaide fidelak izan. Tarteka erritmoa sosegatu (neurtu, orekatu) edota atsedean hartzea komeni. Pasioak jota jardun ezke-ro, emaitzaren erantzuna kontrari etor liteke.

Bestearen gogo eta mesedera erabilia izan denaren sentipenak ez du merezi. Izan ere, denok gara egoistak. Sarri, "manipulatuzailearen" intentzioa ez da apropos txarra izaten. Alabaina, besteak zurekin egitea gustuko ez duzuna (edo zenukeena), ez iezaiozu zuk egin alboan duzunari. Zintzoa ez baita inozoa. Borondateak mugak ditu. Onak diren langile zein emaitzak zaindu, bestela

irauli eta bihurtuko dira gaizto.

Beraz, ororen pairatzaile den gizajoa bilakatzen denean zital, gupidagabekoa izango da koitadu.

Irakurle, zu non kokatzen edo paratzen zara? Axolagabetasunaz beste zer sentitzen duzu? Portatu zaren bezala jokatu izanagatik bejondeizula.

Jende itxurosoa txanponaren beste aldean ezkututzen da barra-barra. Kontu izan iruzurgileekin, nahiz eta toki guztietan badira zintzo eta langileak. Okerrenak, zintzoak izan gabe halakoak diruditenak. Ez gara jende guztia-rekin modu berean portatzen. Ez, ezinezkoa da.

Gauzak honela, bidez-bidez zertan ari gara? Irabazten eta galtzen. Zer baina? Bakoitzak berea. Nola jakin, nola ikus benetan merezi diren emaitza objektiboak non gurutzatzen diren? Nolakoak eta noiz artekoak ote? (...) Itxaropenari eutsi beharko aukera berriak eskuratzeko.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Ezer gertatu baino lehen...



**O**hiturak. Zer diren ohiturak. Onak ez daude zertan aldatu, baina ontzat jotzen ez ditugunak... Batzuk errazagoak gertatzen dira aldatzeko; beste batzuk, aldiz, nekezagoak gertatzen zaizkigu. Onak ez diren ohituretako zenbaitek ez dute kostura hori duten pertsonengan baino eragiten, alegia, ohitura horren igoera eta hartzailea norbera da. Eta kasu horretan... tira! Baina txarrena da ohitura txarren igoera eta hartzailea pertsona berbera ez direnean, alegia, nigan ditudan tradizio txarrak beste batek jasan behar dituzenean; orduan zer?

Kalexarko autobus geltokian zebra bidea markatu dute eta ingurua argiz erakutsi nahi digute aurretik 50 km orduko abiadura ezin dugula gainditu aginduz. Horrek guztiak geltokiari halako garrantzia errenditzen dio; baina gure usantzak medio ez dela nahikoa irizten dut.

Aldatu, ba, ohiturak!, esango du batek arrazoi faltarik ez duelarik. Baina esatera noa, kasu hartan, gure ohituren hartzaileak ez gara gu. Beste batzuk lirakeela jasaileak. Eta ez daukate zertan. Horregatik, baimendutako abiadura gaindituz gero, alertak argi gorria piztu beharko liguke. Ez hartzaileen-gatik soilik, ezpada igoerengatik.

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

## Zirkoa beti zirko

**A**urtengo Ihauterietako gaia "Zirkoa" izango dela jakin genuen pasa den astean. Gai honen inguruan hainbat mozorro, pertsonaia ezberdin, zein animalia etortzen zaizkit burura, baita urtero izaten ditugun komeriak ere zertaz mozorrotuko garen erabakitzerakoan.

Bururatu zaigun mozorro hura originala, bai, baina egiteko zaila... Edo agian janzteko erabat deserosoa... Xehetasun guztiak kontuan hartzekoak baitira betiere. Azken momentuko ukituak beti aldaketa bizi-bizian, amaierako emaitza zein den benetan mozorrotzeko eguna iristen den arte ez dugularik ikusiko. Aurten nahikoa egoera barregarri eta umoretsuak ikusteko eta bizitzeko aukera eskaintzeko seguru bade-la boluntariorik.

Nork daki, egun bakar batez irekita iraungo duen Zirko berezi honetan zein animalia ikuskizun, domatzaile eta guzti, edo pailazo trakets topatuko ditugun. Edo agian trapezistak, malabaristak, su ikuskizunak edota magoak ere... Imajinarioaren bidetik edozer baita posible.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Badator erronka



2010. urtea iritsi zaigu ba. Eta ez da oharkabean pasako zaigun urte horietakoa izango. Urte hasieran beti ibiltzen gara plater goxo eta postre astun horien inguruan. Gero sagardotegiak ere hortxe izaten ditugu ate-joka, San Sebastian festaren inguruan.

Inauteriak dauzkagu orain gain-gainean eta festa hauen ajea pasa orduko iritsiko zaigu erronka aginagarro: alegia, Usurbilgo herritar guztiakin batera gure hondakinak nola kudeatu behar ditugun erabaki beharko dugu.

Iritsi da erabakitzeko garaia: edo ia urtebetez probatu dugun Atez-Ateko bilketa sistemarekin jarraitu, edo berriz ere lehen bezala batzuek hondakinen frakzio batzuk borondatez birziklatzen duten bitartean beste askok dena nahastuan boteaz segitzea.

Aitortu beharra daukat, hasieran herritar asko despistatu xamarrik ibiltzen gabela etxeko hondakinak ondo bereizteko orduan, eta orain lantokietan hori bera ari zaigu gertatzen, ni ari naizen lantokian bertan ikusten dudanez. 2009ko martxoan herritarrak gure etxeko hondakinekin egiten hasi ginena, orain industrian hasiko gara egiten, eta

egun horretarako prestatzen aritu gara enpresak eta langileak azken asteotan. Egia esan, ez dut uste batere gaizki goazenik.

Herritar guztiok otsailaren 27-28an daukagu erronka. European eta munduan indartzen ari den bidea da guk ere jarraitu nahi duguna: ahalik eta zabor gutxiena sortu, sortzen diren hondakinetatik ahalik eta gehien birziklatu eta errausketa bezalako sistema kutsatzaileen beharrik ez izan. Gipuzkoan aurreko puntan aritzea tokatu zaigu, baina atzetik datozen herriak ere baditugu, Hernanin eta Oiartzunen martxoan hasiko dira Atez-Atekoarekin, eta ez dira azkenean izango.

Egia da ez digutela laguntza askorik ematen instituzio batzuek eta ezta ere Usurbilen Atez Atekoaren kontra sortutako plataformak. Baina beraiek aurka egoteko adina eskubide dugu guk abiatu berri dugun bidean jarraitzeko, ahal den guztia hobetuaz betiere.

Egin dezagun kanpaina argia, bakoitzak berea adieraziz askatasun osoz. Aginagarrok ere ziur naiz osasunaren eta naturaren aldeko bideari jarraituko diogula, Atez-Ateko sistemari alegia. Beraz animo.

KALEZAR

MADDI GALBETE

## Bai ala ez?



Ia urtebete pasa da atez ateko bilketa praktikan jarri zenetik, eta denbora bera daramagu gure artean eztabaidaka.

Batzuek aurrekoa baino hobea dela diote, besteek aldiz, pegak besterik ez dizkiote ikusten: kaleak zikinago daudela, lan handiagoa dela...

Nik nire ikuspuntua bakarrik adieraz dezakedanez, horretara mugatuko naiz, baina argi eta garbi adierazi nahi dut, gure etxeko honetan inguruok askoz ere garbiago daudela neurri hau martxan jarri zenetik. Jada ez da etxe pareko kontenedorean ikusten garai batean zabor poltsaz beterik egoten zen pila hura, eta katuek ez daukate bertan zirikatzen ibiltzeko betarik.

Gure etxean behintzat, hasieratik hartutako neurriak mantentzea ez da zaila. Kaxoi desberdinetan poltsa desberdinak jarritz ondo moldatzen gara, eta argi daukat ohitura kontua baino ez dela, eta edonor ohitu daitekeela, bere partez gogo pixka bat jartzen badu behintzat. Zeren, ezin esango didazue lan handia denik! Gure esku dagoen gutxia eginda, gainera, ni askoz hobeto sentitzen naiz.

Hilabete bukaeran izango dugu erreferenduma, eta espero dut orain arte bezala atez ateko hau mantentzea. Ea azkenean eztabaidak alde batera utzi eta adostasunera iristen garen!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Euria. Eta euria. Eta euria

Batzuetan giroa tristea da gero! Santa Agedako entsaioak ere indarra faltan.

Zubietan ez dago gehiago, herri txikia gara; gero eta txikiagoa, antza.

Herri erreferendumerako ere hasi da lehenengo propaganda agertzen bazterrotan. Batzuk, gainera, nahiko dute errauskailuaren aldeko botoa ematea ...



Kontua da ditugunetan ere gero eta eskasagoak gabela. Batetik, Eskola txikia txikiagoa nahi dute, edo txikitu. Ez dakit. Bestetik Bugatiko Etxemaite ere joan den astean itxi zuten, gelak ez zirelako egokiak urbanismoko ez dakit zein xedapen edo aginduren arabera. Eta Zubietaren izen ona kamioizaleen artean horrekin joango zaigu. Ez zuten itxi edateko, hori herri honetan kontu serioa da alajain! Zer egingo diogu,ba? Maitasun gutxiago hemendik aurrera. Ikusten duzue-nez herri tristea gara, gutxienez, neguan.





## Udarregi ikastola, “denontzat eta denona izatea”

**B**ete-betean da Udarregi ikastolako matrikulazio kanpaina. Mariaje Imaz zuzendariaren esanetan, “Ikastolak hezkuntza alorretik bere ekarpena egin nahi dio herriari”. Aurreko asteko elkarrizketaren jarraipena duzue hauxe.

**NOAUA!** Gurasoak ere, eskolatik aparte, lan polita egiten ari dira. Hitz Aho da horren adibide. Gurasoen dinamika hori oso aberasgarria eta txalagarria izango da, ezta?

Mariaje Imaz. Bai, halaxe da, eta ez duzu imajinatzen nolako poza hartzen dugun egiten ari diren lan bikain eta eskerga ikusten dugunean! (...).

2006an parte hartzeko deia familien artean zabaldu, horretarako prest zeudenekin bildu eta horra hor, Hitz Aho!

Isil-isilik aurrea eta gero eta ozenago gero, bai ikastolan eta baita herriko plazan ere ikusi ahal izan ditugu guraso hauek lanean, denon artekoa nahi dugun ikastola bultzatzen!

### ASPALDIKO ALDARRIKAPENA

“Ikastolako espazioak ez dira nahikoak sortzen ari zaizkigun beharrei erantzuteko”

Beraz, egiten ari diren lana txalotzearekin eta eskertzearekin batera, ikastolako familia guztiak animatu nahi nituzke taldean parte hartzeko. Esku eta anima gehiagorekin kontatzea ez dago behin ere soberan eta gainera elkarrekin asko dira abiatu ditzakegun egitasmoak!

**N. Herria handitzen ari da. Honi azken urteotako aldarrikapena gehitu behar zaio, espazio faltarena. Nola irudikatzen duzu etorkizuna?**

**M. I.** Ez da berria ez, aldarrikapen hau, eta momentu honetan buruhausterik handiena sortzen diguna bada ere bai!

Herrian azken urteetan eman den populazioaren hazkundera bultzaka dugu eta egun, Ikastolako espazioak ez dira nahikoak sortzen ari zaizkigun beharrei erantzuteko.

2004an idatzi genuen lehenengo txostena ikastolako espazio fisikoen beharrez eta geroztik, pauso ezberdinak eman ditugu Udalaren laguntza osoarekin:

Agerialdeko eraikinean igogailua jarri, gela berriak erantsi, ditugun gelen aprobetxamendua topera eraman, eraikin beraren zaharkitzeari aurre egiteko saiakerak ... Dena den, moldaketa hauek ez dira nahikoak eta eraikin berri baten beharra gero eta ageriagoa egin zaigu azken urteetan.

Kontuan hartu behar da, jada, HHn ikasmaila bakoitzeko 3 talde ditugula eta Lehen Hezkuntzara aurten ere lehenengo aldiz 3 ikastalde pasa direla.

Hazkunde honek behetik gora dator eta derrigorrezkoa izan zaigu hasierako Espazio Fisikoen Beharren Txosten hari, urtez urteko beharren proiektzioa doitzea eta obra proposamenak eranstea. Honetarako Ikastoletako Partaideren (Ikastolen taldean barruan, kudeaketa gaien ardurak, aholkularitza eta Administrazioarekiko harremanetan lan egiten duena) aholkularitza izan dugu.

Era berean, herriak hezkuntzan dituen beharrei erantzun nahi baldin badiugu ikusten dugu eraikin berri baten beharra dugula.

Bestalde, 0-16 eskaintza aurrera ateratzeko eta bereziki 0-6 hezkuntza tramua gaur egungo korronte pedagogikoak markatzen dituen ildoetatik garatu nahi baldin badugu, adin hauetako haurrak eraikin bakar batean biltzea onuragarria eta beharrezkoa da.

Honekin batera, esan nahi dugu, inoiz ez dugula zalantzarik egin, lehen aipaturako Hezkuntza Eskaintza Integrala erdiesteko xedea portu onera eraman nahi baldin badugula, eta jakitun izanik, herrian bestelako hezkuntza eskaintzarik ez dagoela, Udalera eta Hezkuntza Sailera joan beharra daukagula eskaera zehatz batekin.

Hala, udazken honetan Usurbilgo alderdi politiko guztiei gutuna helarazi genien elkarrizketak eskatuz; eta halaxe egin ditugu horretarako prest agertu direnekin.

Hezkuntza Sailarekin harremanetan jartzea ez dugu oraindik lortu baina saiakera hau egiten ari gara. Hasiera batean, azarorako erantzunaren bat izango genuelako esperantza genuen, baina ez da honela izan. Berrito harremanetan jarriko gara.

Kontaktuen artean eta Haur Eskolaren esleipenaren inguruan Udalarekin izandako harremana tarteko, eraikinaren gaia



KILOMETROAK JAIAREN ESKAERA EGINDU UDARREGI IKASTOLEN ELKARTEAN.

planteatu eta jorratu dugu iazko ikasturtean zehar eta segida ematen ari gatzazkio honetan ere bai. Alkatearekin egindako elkarrizketetan, espazio beharrez gain, ikastolaren kezka transmititu diogu, lehenbailehen gaiaren inguruan adostasunak biltzeko premiaz iritzia azalduz.

Instituzioekin izaten ari garen harremanaz gain, ikastola barruan, guraso talde bat izendatuta dago iaztik gai honen kudeaketan laguntzeko eta, laster batean martxan jarriko da, begi bistan baitago denbora soberan ez dugula ate joka dugun beharri taxuz erantzun nahi baldin badiogu, bederen.

Bide honekin batera eta kontziente izanik era honetako proiektuen finantzatzekak duen tamainaz, Kilometroak Jaiaren eskaera burutu dugu urtarrilaren 29an, Ikastolen Elkartearen Eskaera Txostena aurkeztuz. Finantzatzeko bide honetaz, hain premiazko dugun eraikin berria altxatzen lor dezagun, bakoitzak bere lekutik eta denon arteko ekarpena beharrezkoa dugu!

Herriak sortutako ikastola, herriaren laguntzaz berreraiki eta herriari ate zabali itzul diezaion hezkuntza eskaintza emankorra, bai orain eta baita etorkizuneari ere, guztiak beharrezkoak ditugu.

### N. Aipatzeko besterik...

**M. I.** Ikastolak hezkuntza alorretik bere ekarpena egin nahi dio Usurbili, edozein etxetako atean atzean dauden hezkuntza behar anitz eta desberdinak asetzen laguntzera iritsi ahal izateko.

Hezkuntza, kolektibitatearen eginkizuna den neurrian, aukera eman nahi die herritarrei denon ekarpena egiteko, honela bakarrik lortuko baita, ikastola denontzat eta denona izatea.



# UDARREGI IKASTOLA



**PARTAIDE  
IKASTOLAK**

## *Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizuete:*

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.

*41 urteko esperientzia Usurbilen.*

**Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)  
Otsailaren lehenengo HAMABOSTALDIAN:**

**HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6**

**LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12**

**DBH: 12 - 16**



**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea, USURBIL

[www.udarregi.com](http://www.udarregi.com)

[www.udarregi.mundua.com](http://www.udarregi.mundua.com)

## Udalak, AEK Etumeta Euskaltegiak eta NOAUA!k

# “Mintzalagun” egitasmoa jarri dute martxan

**I**kasitako hizkuntza bizitzako egunerokotasunean, egoera konkretu eta errealan erabili ezean, helduek ezinezko izango dute hizkuntza horren erabilera maila egokirik. Euskararen ikasketa-prozesu osoa oraindik amaitu ez dutenei euskaraz egiteko eta, aldi berean, herriko beste euskaldunak ezagutzeko guneak eskaini behar zaizkie. Hori da Mintzalagun proiektuaren oinarria.

Mintzalagun programak euskara maila ertain edo altua duten herritarrentzat -bereziki 16 urtetik gorako helduentzat- euskara praktikatzeko eta, ahal dela, euskaraz bizi ahal izateko hainbat egoera sortzen eta hainbat jardura eta ekitaldi antolatzen dituen programak dira. Batera biltze horien bitartez, batetik, ahalbidetu egiten da udalerriko euskaldunek elkar ezagutzea eta, bestetik, bizkortu egiten da norberaren euskara mailaren optimizazioa. Eta zentzu horretan, tokian tokiko eskal komunitatea trinkotzeko tresna garrantzitsua bihur daitezke.

### MINTZALAGUN EGITASMOA

“Jariotasuna landu, hitz egiteko ohitura txertatu eta harreman sareak sortzea du helburu”

#### Erabilera guneak sortu

Partaideei dagokionez, Mintzalagun programak jariotasuna lantzea eta hitz egiteko ohitura txertatzea bilatzen du, eta, gizarteari dagokionez, harreman sareak sortu eta erabilera guneak irabaztea dute helburu.

Parte hartzaileen artean hainbat hiztun mota aurkituko ditugu: euskaldun osoak, euskaltegiko ikasleak, ikasle ohiak, etxean euskara jaso dutenak. Partaide guztiak, hala ere, euskaraz



EUSKARAZKO HARREMAN SAREAK SORTU ETA ERABILERA GUNE BERRIAK IRABAZI NAHI DIRA MINTZALAGUN EKIMENAREN BIDEZ.

komunikatzeko gai diren pertsonak izango dira. Haiekin guztiekin mintzaldeak egingo dira.

#### Astean behin

Gutxienez astean behin bilduko dira. Horretaz gain, urtean zehar hainbat ekintza osagarri antolatuko dira.

Taldeetako partaide guztiak ardura bera izango dute; ez da emango irakasle-ikasleen harremana, kideen artekoa baizik.

Programak borondatezko izaera dute, eta jardura ludikoak garatzen dituzte eta erabiltzaileen aisialdi denboran garatzen dira.

#### Hitz egiteko ohitura txertatzea

Partaideei dagokionez, Mintzalagun programak jariotasuna lantzea eta hitz egiteko ohitura txertatzea bilatzen du, eta, gizarteari dagokionez, harreman

sareak sortu eta erabilera guneak irabaztea dute helburu:

- Norberaren euskara maila hobetzea eta ikas prozesua azkartzea. Goi urratsetan dagoen euskara ikasleari edo jakin bai, baina bere inguruan erabiltzeko aukera ez duenari. Jariotasuna duten euskaldunekin mintzatuz bere hizkuntza naturaltzeko bidea eskaintzen zaie.

- Normalizazio prozesuan eragile aktibo izatea.

- Euskarazko harreman sareak sortzea eta erabilera gune berriak irabaztea.

- Hizkuntzarekiko atxikimendua eta motibazioa areagotzea. Mintzapraktika programen jardura aisialdiarekin lotuta dago, aisialdi denboran garatzen da, ekimen atsegina da, askea. Sentimenduak eta bizipenak trukatzeko dira hizkuntzarekiko atxikimendua eta motibazioa areagotzeko aukerak ugarituz.





## “OLARRONDOKO GAUAK”

- Ostiral eta larunbatetan apirila azkenerarte, **GAU GIROA**, DJ Izania gaueko 12tik aurrera.
- Helduentzako urtebetetzeak: (tarta aukerarekin)
  - Despedidak (guk antolatzeko aukera)

## OHARRA:

**OTSAILAK 13ko GAUAN, LARUNBATA, taberna ITXITA** egongo da ezkontzogatik. Barkatu eragozpenak.

**Olarrondo Jatetxea**

5 zenbakia. USURBIL

erreserbak: ☎ 943 360 376

[www.olarrondo.com](http://www.olarrondo.com)

## “Eskola Bizirik, Agiña Bizirik...”

NOAUA! Zertan oinarrizten da Aginagako Herri Eskolaren eskaintza?

Aginagako Herri Eskola. Eskola txikien definizioaren arabera gure eskolan ematen den egoera, eta identitate ezauzgarri garrantzitsuena zera da: “gela bakoitzean adin ezberdinetako umeak egotea”.

Honek adinen arteko interakzioa era natural batean bultzatzen du eta ikasleek beraien esperientzietatik ere ikasten dute.

Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen du Aginagako eskolak, hau da 2-12 urte bitartekoentzat D ereduko irakaskuntza eleanitza. Harremanetarako zein hizkuntza akademikoa euskara dugu baina beste hizkuntzei ere, gaztelera eta ingelesa, garrantzia ematen diegu. Ingelesa 3 urtetik aurrera irakasten da.

Era digitalean ezin ditugu informazioa eta komunikaziorako teknologiak ahaztu eta gure ikasleak teknologi berrietan trebatzen ditugu.

### HERRI ESKOLA

“Eskola txiki bat herri baten arima da. Ez da bizirik ulertzen, eskolarik gabe”

Behar bereziei aurre egiteko irakasle espezializatuaren laguntza dugu.

Eskolako beharrei erantzuteko beste Eskola Txikiekin batera lana egiten dugu, berriztapen proiektuak aurrera eramaten, irakasleok etengabeko formazioa jasotzen, herri ezberdinetako ikasleen arteko harremanak bultzatuz eta gurasoek Gipuzkoako Gurasoen Elkarteetako Koordinakundean parte hartuz.

Eskola, komunitate bat izanik, bertako partaide guztion artean, hots gurasoak, jangelako arduraduna, ikasleak eta irakasleak, eskolako arauak eta funtzionamendurako Elkarbizitza Plana eratzen ari gara.

Behar dutenentzat jangela zerbitzua daukagu eta garraio propiorik ez izan arren, 3-12 urte bitarteko ikasleentzat



AZKENEKO URTEETAN MATRIKULA KOPURUA IGO EGIN DA AGINAGAN.

Hezkuntza Departamentuak dirulaguntza ematen du.

Azkeneko urteetan matrikula igoera izan dugu eta gaur egun Haur Hezkuntzan oso talde polita daukagu, adin guztietako ikasleak daudelarik. Joera hau ezinbestekoa da eskola eta Aginagaren etorkizunerako.

**N. "Eskola bizirik, Agiña bizirik" dio zuen iragarkiak.**

A. H. E. Noski, herri bat bizirik irauteko bertako umeak herrian hazteko garrantzian sinesten dugu eta horrela eskatzen ari gara Eskola Txikietako Koordinakundean garenok. Joan den hilaren 26an izandako Usurbilgo udalbatzan onartu zen mozioko testuak zioena ondo islatzen du gure sentimendua:

“Eskola txiki bat herri baten arima da. Ez da herri txiki bat bizirik ulertzen eskolarik gabe. Haurrik ez dagoen herria itzalita dago, baina herri txikietan haurrak izateko, beharrezkoa da gizarte antolatu batean dagoen zerbitzurik funtsezkoenetako bat edukitzea: heziketa gunea, hots, Eskola Txikia. Herri txikien hustutze fenomenoari aurre egiteko ezinbestekoa da hiri eta herri nagusietatik aparte dauden bizigune txikietako zerbitzu eta azpiegiturak mantentzea edo behar bada, osatzea. Eta, nola ez, hauen artean garrantzi berezia dute eskolek, izan ere, hain beharrezkoa den belaunaldi-erleboia emango bada, ezinbestekoa da hauen seme-alabek beren heziketa mailak etxetik gertu eta duintasun osoz egin ahal izatea.”

## Otsailaren 12an amaituko da matrikulatzeko epea

NOAUA! Eskolatik aparte, bestelako eskaintza ere egin ohi da: udalekuak, ludoteka, liburutegia...

Aginagako Herri Eskola. Eskolaz kanpoko zenbait ekintzetaz San Praixku Guraso Elkarteak arduratzen da. Aginagako umeentzako jarduera desberdinak antolatzen dituzte oportunitate, bai Aste Santuan (2 astetan) zein uztailean.

Herriko festetan ere “umeen eguna” antolatzen dute.

Guraso Elkarteaz gain, Antxomolantxa Kultur Elkarteak ere larunbat goizetan zein Gabonetako oportunitate txokoak antolatzen ditu.

Ekintza gehienak ludotekan burutzen dira.

**N. Pozik zaudete Eskolak dituen azpiegiturekin?**

A. H. E. Hau guztia aurrera eramateko bertako eragileen lanaren ondorioz eta, noski, Administrazio desberdinen babesari esker lortu da, hau da Hezkuntza Departamentua eta Usurbilgo udaleko babesari esker, azkeneko hau baita eraikinarren mantenuaren arduradun zuzena. Orain dela bi urte egindako hobekuntza obrak garrantzi handia izan zuen. Gaur egun oraindik asetzeko beharrak daude (biltegiak eta beste erabilerako leku baten bila gabiltza) baina Udalarekin batera lanean ari gara.

**N. Zeintzuk dira matrikulatzeko jarraitu behar diren pausoak?**

A. H. E. Informazio gehiago lortzeko edota gurekin harremanetan jarri nahi duena eskolatik pasatzera edo 943 372044 telefonora deitzera animatzen dugu. Gure ordutegia 09:00etatik arratsaldeko 17:00ak artekoa da.

Bide batez, matrikula egiteko epea otsailaren 12an bukatzen dela gogorarazi nahi dugu.



# AURKI ITZAZUE ZAZPI EZBERDINTASUN



## GUK EZ DUGU EZBERDINTASUNIK NAHI, ZUEK?

Ingurumena zainduz gure osasuna ez dugu arriskuan jarriko eta gure ondorengoei etorkizun hobea eta garbiagoa utziko diegu.

## ERRAUSTEGIRIK EZ INON!

USURBILGO EZKER ABERTZALEA

## Datorren astean, Inauteriak girotzeko zirko mundiala

**Z**irkoak kalea hartuko du otsailaren 13an. Baina herriko kaleek zirkoko protagonistak behar dituzte; une horretarako apropos jantzitako herritarrak. Pailazoak, trapezistak, animaliak... Astebeteko tartea baino ez dago, jantziak, eta inor animatuz gero, nor bere ikuskizuna prestatzeko, astebete barru kalean batzuen zein besteen trebetasunak erakusteko aukera izango da eta. Hitzordua jarria dago. Hurrengo larunbatean, mozorrotu eta kalera!

Hasieran ideiak zirenak, pixkanaka gauzatzen ari dira. Azken aste hauetan, sekretupean bada ere, zenbait koadrilek lanean dihardute, planifikatutako ideiak garatzen; materiala eskuratu eta mozorroak sortzen. Prestaketa lanen emaitza datorren otsailaren 13ko inauteri festan ezagutu ahal izango da. Berandu dabilenak izan dezala gogoan; inauterietarako astebete eskas falta da.

### AFARIA SAIZARREN

“Txartelak alde zurretik erosi behar dira NOAUA!ko egoitzan; 29 eurotan daude salgai”

### Zumarteko gazte txaranga, kalejiran

Festa giroa beti kalean egon ohi da, eta NOAUA! Kultur Elkarteak otsailaren 13rako antolatu duen inauteri festaren oinarrietako bat izango da; inauteri festa kalean ospatzea. Eguneko lehen orduetatik gainera. Kaxkoko kaleak girotzen ari tuko da eta, herriko txaranga talde bat, bazkalaurretik. “Zumartxan” Zumarten ikasle gazte taldearen txaranga izango da, bazterrak alaituko dituena.

### Arratsaldean, mozorro festa

Herritarrak mozorrotuta agertzeko hitzordua jarria dago arratsalderako, gaia aukeran jarria, zirkoa. Hilaren



ZUMARTEKO MUSIKARI GAZTEEK OSATUTAKO "ZUMARTXAN" TXARANGA OTSAILAREN 13AN EGUERDIAN IBILIKO DA.

13an, 18:30ean udaletxe aurrean. Leku eta ordu horretan hasiko da Ordiziako Burrunbazale txaranga abiatuko duen kalejira. Iaz herriko batukada taldearekin burutu zen kalejirak harrera ezin hobea izan zuen Kaxkoan. Koadrilek herri guneko kaleak bete zituzten, asko ordurako proposatu zen olinpiaden gaiarekin bat eginez, kirolariz mozorrotuta. Desfile itxura hartu zuen kalejirarekin aspaldi ikusi gabeko inauteri giro polita sortu zen.

### Afaria Saizarren

Kalejiran galdutako indarrak berreskuratzeko afaria antolatu da Saizarren. Sarrerak alde zurretik erosi behar dira, NOAUA!ko egoitzan. Jada, 29 eurotan eskura litezke. Afaritara mozorrotuta joatea ezinbestekoa izango da, eta noski, beharrezkoa baita, otordura NOAUA!-n erositako txartela eramatea ere.

### Otsailak 13 larunbata

12:30 Kalejira Zumarteko txaranga gaztearekin, musika eskolatik abiatuta.

18:30 Kalejira Burrunbazale txaranga-ekin, udaletxe zurretik abiatuta.

21:00etan, afaria Saizarren. Sarrerak salgai NOAUA!-n.

### Kalezarrekoentzat deialdia

Asteburu honetan, Kalezarreko hainbat bizilagun Inauterietako mozorroa prestatzen ari tuko dira. 16:00etatik aurrera, auzoko lokalean.

## Otsailaren 12an, ikasleen kalejira eta mozorro festa

**M**ozorro festa goizean goiz hasiko dute ikasleek. Kalean lehenbizi, Kiroldegian gero: 10:00 Martxa dantzatzuz, Lehen Hezkuntzako ikasleen kalejira. Bi ibilbide:

LH 1-2-3: Agerialde, Atxegalde, udaletxea, Kale Nagusia, Errekatxo kalea, Zubiaurrenea kalea, Bordatxoko errotonda, Kiroldegia.

LH 4-5-6: ikastola, Bordatxoko errotonda, Kalezar, Puntapax, Kiroldegia.

11:15 “Zatoz inauterietan Usurbila!” ikuskizuna Oiarde Kiroldegian. HH, LH eta DBH-ko ikasleen parte hartzea.

### Kalejira eta gero, denok kiroldegira

Bi ikasle taldeen kalejirak Oiarde kiroldegira iritsiko dira. Eta 11:15etik aurrera, Inauterietako ikuskizuna eskainiko dute. Egiptoarrak, bakeroak, sorginak, futbolariak... Guztiak, “Ud-Arregi” zirkoko kideekin batera kiroldegian bilduko dira.

### Mozorroak, mailaz maila

Ohi bezala, kolorea eta aniztasuna nagusituko dira Udaregi ikastolako inauteri festan. Mailaz maila, ikasle talde bakoitzak bere mozorroa eramango du soinean:

HH 3, 4 eta 5 urtekoak: zakuekin.

LH 1: kolorez.

LH 2: sorginez.

LH 3: Egiptoarrez.

LH 4: Colonek aurkitutako Amerindiarrez.

LH 5: Oesteko bakeroz.

LH 6: Champions-eko jokalariz, animatzaileekin.

DBH 1-2-3: “Ud-Arregi” zirkoa.



# INAUTERIAK 2010

otsailak 13

**Zirko mundiala**  
mozorrotu eta  
atera kalera!

# Herri galdeketaren prozedura administratiboa onartu du udalbatzak

**H**iri hondakinen kudeaketari buruzko herri galdeketa egunak gerturatzeko ari diren honetan, gai honi lotutako prozedura administratiboa onartu zuen udalbatzak, urtarrila amaierako osoko ohiko bilkuran. Adierazpenen tartean, herritarrei hitza emateko nahia agertu zuten udal ordezkariak, kanpaina gardena egitea eskatzearekin batera.

Otsailaren 27an eta 28an burutuko den hiri-hondakinen kudeaketari buruzko herri-galdeketa prozedura administratiboa onartu zuen udalbatzak, urtarrila amaierako osoko ohiko bilkuran. Prozedura administratiboa onartzeak, herri-galdeketa lotutako oinarriak babestea suposatu du. Udalbatzaren oniritziarekin finkatu dira beraz; bozketa egunak, ordutegia eta lekuak; mahaiaren osaketa; bozketa prozesua; bozketako emaitzaren ondorioak... Bestalde, herri galdeketa erabiliko diren agiri ofizialak ere onartu ziren, gehiengoz.

## LUIS MARI ORMAETXEA

Udalari neutraltasuna eskatu zion, eta herritarrei behar beste informazio helaraztea

Gobernu taldeak osoko bilkurara eramandako prozedura azaltzen duen txostenean, bi aldaketa txertatu zituzten osoko bilkuran. Lehenengoa, bozka eman ahal izateko adinari lotutakoa; 18 urte otsailaren 28an edo lehenago bete izatea eskatuko baita, txostenean aipatu moduan otsailaren 27a edo lehenago izan ordez. Bestalde, osasun zentroetan edo espetxeetan egon edota etxetik irteteko ezintasuna duten herritarren kasuan, bozka eman ahal izateko ordezkari bat izendatzeko aukera eskaintzea zen Udalaren asmoa. Baina aukera baztertu zen urtarrila amaierako osoko bilkuran, alde aurretik burutu zen Batzordean prozedurarekiko mahai



18-65 URTE ARTEKO HERRITARREK BOLONDRES GISA EGON LITEZKE MAHAIAZ, HERRI GALDEKETA EGUNETAN. OTSAILAREN 8AN AMAITUKO DA ESKAERAK UDAL IDAZKARITZAN AURKEZTEKO EPEA.

gaineratutako udal ordezkarien kezka zirela eta.

## Galdeketa, udal ordezkarien ahotan

Herri galdeketa prozedura administratiboarekiko Alkarbide udal taldea aurka agertu zen, gainerako udal ordezkariak alde. PSE-EE-ko zinegotziak ez zuten osoko bilkuran egotetik izan.

Alkarbide udal taldeko bozeramaile Luis Mari Ormaetxeak prozeduraren tramitazioa zer azkar egin den azpimarratu zuen. Gaiari buruz ezer ez jakititik dokumentu itxi bat izatera igaro direla zioen. Kontsulta modu honen aurka agertu zen, besteak beste; lehenetik aurkakotasuna agertu zuten hiru erantzunak biltzen baititu galdeketa edota herri galdeketa bi egunetan burutuko delako. Argitasun falta egotzi zion galdeketa edukari. Kanpainari begira, gaineratu zuenez, “prozesua gardena izango dela espero dugu”. Udalari neutraltasuna eskatu zion, eta herritarrei behar beste informazio helaraztea.

Lontxo Zubiria (Aralar) herri galdeketa prozeduraren alde agertu zen. Bozkatzeko erraztasun guztiak emango direla adieraztearekin batera, herritarrek izango dutela hitza gogorazi zuen. “Herriak ikusi beharko du hasitako bideari onospena eman edo lehengora bueltatu. Herriak erabaki dezala. Egin dezagun denok kanpaina argi eta txu-

kun bat”, adierazi zuen.

Iñaki Illarramendik (EAJ-PNV) ere prozeduraren alde bozkatu zuela iragarri zuen, hitza hartu zuenean. Herri galdeketa ahal bezain laster burutzea eskatu zuen. “Lehenbailehen herriaren erantzuna jakin nahi dugu”, adierazi zuen.

## XABIER MIKEL ERREKONDO

Herri galdeketa edukia, hiru erantzun aukeran jartzearen zilegitasuna defendatu zuen

Gobernu taldetik, Alkarbideri erantzunez, alkate Xabier Mikel Errekondok herri galdeketa edukia, hiru erantzun aukeran jartzearen zilegitasuna defendatu zuen. Bere esanetan, azkenean, “herritarrek dira erabaki behar dutenak”. Herri galdeketa edukia argitasuna azpimarratu zuen, gaineratuz, orokorrean egindako eskaera bati erantzuten diola hiru bozka paper jartzeak. Hondakinen bilketa baino kudeaketari buruzko herri galdeketa izango dela adieraztearekin batera, herritarrek gai honen inguruan erakutsitako jarrera ahotan hartu zuen alkateak. “Herritarrek zorionez prestutasuna agertu dute gaiari heltzeko”, zehaztu zuen.



# Eskola Txikiak bizirik mantendu eta indartzea eskatu du udalbatzak

**E**skola Txikien aldeko mozioa eztabaidatu eta onartu zuen Udalbatzak urtarrila amaierako ohiko osoko bilkuran. Zubieta eta Aginagan kokatzen diren herri ikastetxeen gisako guneak babestearen alde agertu ziren udal ordezkariak. Horretarako giltzarrietako bat zein zen aipatu zuten; elkarlana.

Eskola Txikien inguruko mozioa onartu zuen udalbatzak urtarrila amaierako ohiko osoko bilkuran. Eskola Txikiak mantendu eta handitzea eskatzen du testuak. Irakasleen egonkortasunari konponbidea bilatzea, eskola txikien arteko harremanak sendotzea eta 0-3 urte arteko hezkuntza eskaintza zabaltzea ere galdegiten da udalbatzak babestu zuen mozioan.

Gobernu taldeko kide Juanjo Olaizolak Zubietak jasan ohi dituen erasoetako bat gehiago bezala definitu zuen Eskola Txikiaren egoera. Egoera aldatzeko giltzarria aipatu zuen segidan. "Elkartuta eta baturik lortuko dugu, Zubietako eta Euskal Herriko eskola txikien egoera gaintzea", zehaztu zuen.

## Babesa eta elkarlanerako deia

Udal ordezkariak mozioaren alde agertu ziren, Alkarbide udal taldea izan ezik, osoko zuzenketa aurkeztu baitzuen. Taldeko bozeramaile Luis Mari Ormaetxeak irakurritako oharrean, gertuen dituen eskola txikiak babestea eskatzen zion Udalari. Baita euren bizi iraupena bermatzeko gainerako administrazioekin elkarlana bultzatu eta kalitateko hezkuntza eskaintzeko baliabide materialak jartzea ere. Bide batez, alorreko herri eragileak biltzen dituen Hezkuntza Mahaia deitzea eskatu zuen, Zubietako eskola txikiko guraso eta irakasleek egoeraren berri eman eta Udalak zer egin aztertzeko.

## Hezkuntza Mahaia

Gobernu taldeak aurkeztutako proposamenaren alde agertu zen Aralar. Joxe Ramon Furundarenak ontzat eman zuen Alkarbidek proposatutakoa ere; Hezkuntza Mahaia deitzea garrantzitsutzat jo zuen.

Iñaki Illarramendi (EAJ-PNV) ere eskola txikiak babestearen alde agertu zen.



BI ESKOLA TXIKI DITUGU HERRIAN, HORIETAKO BAT AGINAGAN (IRUDIAN).

## Dirulaguntza deialdiak

Usurbilgo Udaleko Kultura eta Gizarte Ongizate Saitetako diru-laguntza oinarriak otsailaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Diru-laguntzak eskatzeko epea otsailaren 25ean amaituko da. Honako agiriak eraman behar dira udalera: eskaera-orria (udaletxean eskuragarri), ekintzei buruzko fitxak, nortasun agiria erantzun fotokopia edo identifikazio fiskalaren kopia eta Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasuneko bete-beharretan egunera egotearen agiria.

Kiroletako diru-laguntza oinarriak aurrerago argitaratuko dira.

## Maixu etxeko eta Olarriondoko etxebizitza sozialak

**A**lokairu sozialeko etxebizitzak bultzatzeko bi erabaki hartu zituen udalbatzak urtarrila amaierako ohiko osoko bilkuran. Batetik, Gernika ibilbidean kokatzen diren Maixu-etxeko udal jabetzako sei etxebizitzak gutxienez 50 urtez alokairuan izateko konpromisoa hartu du udalbatzak aho batez.

## 50 urtez alokairuan

Beste hainbeste egin zuen, Olarriondo eremuan eraikitzeke dauden beste 23 etxebizitzekin ere. Gutxienez, mende erdiz alokairuan izatea erabaki zuen udalbatzak, gehiengo osoz.

## Lurdes Otegi, Kirol Patronatuko ordezkari

**A**zaroaren 25eko hauteskundeetan Lurdes Otegi Kirol Patronatuko abonatuaren ordezkari hautatua izan zen. Kirol Patronatuak abenduaren 29ko bileran ontzat eman zuen hautaketa. Udalbatzak urtarrilaren 26ko ohiko osoko bilkuran udal ordezkariak beste hainbeste egin zuten, aho batez.



AZKEN PLENDAN ONTZAT EMAN ZEN IZENDAPENA.

## Kutxarako udal ordezkariak

**X**abier Mikel Errekondo alkatea, eta ordezkari bezala, Juanjo Olaizola gobernu taldeko kidea hautatu ditu udalbatzak gehiengoz Usurbilgo Udala Kutxako Kontseilu Nagusian ordezkatzeko.

Bigarren ordezkariak bat ere izango du Udalak. Lezo, Oiartzun eta Bergarako udalekin osatutako Elkarte hain zuzen. Aipatu bilgunea, Iñaki Queraltzek ordezkatzeko du.

Hala erabaki zuen udalbatzak, urtarrilaren 26ko bilkuran. Alkarbide udal taldea proposamenaren aurka agertu zen. Aralar eta EAJ-PNV-ko ordezkariak abstentziora jo zuten.

PSE-EE-ko zinegotziak ez zuen osoko bilkuran egoterik izan.

## Areto futbol txapelketan izena emateko epea laster amaituko da

**O**tsailaren 9a izango da izena emateko azken eguna. Ostiraletan jokatu da txapelketa, 21:00etatik aurrera.

Baldintza hauek bete behar dira:

- Partaideak 17 urtetik gorakoak izatea (1993. urtean edo lehenago jaiotak).
- Talde bakoitzean gehienez ere 12 jokalaria izango dira.
- Talde bakoitzak, 70eur o.

Aurkeztu beharrekoak:

- Taldearen izena, arduradun baten izena, jokalaria guztien NA agiriaren



FINALA MARTXOAN JOKATUKO DA,  
GAZTE EGUNEAN.

fotokopiak (aseguruak egiteko), kamisetaren kolorea.

Izena emateko Zendoia tabernara jo behar da otsailaren 9a baino lehen.

### Xabier Peñagarikano garaile Gipuzkoa sarian

**G**ipuzkoako Saria, neguko pista-ko txapelketa jokatu zen aurreko asteburuan Donostiako Belodromoan. Irabazleetako bat Xabier Peñagarikano kirolari gazte usurbildarra izan zen. Buruntzazpi txirrindulari taldeko kidea da Peñagarikano eta bigarren urteko jubenil mailan ari da. Hauxe da Buruntzazpi taldearen lehen garaipena. Zorionak!



XABIER PEÑAGARIKANO ETA HAINBAT  
LAGUN, DONOSTIAKO BELODROMOAN.

### Ana Merino irabazle eskubaloi zozketan

**2**058 zenbakia izan da Usurbil KE eskubaloi elkarteko enberrifak zozketan azken zenbaki saritua. Antxeta jatetxean bi lagunentzat afora irabazi duena berriz, Ana Merino herritarra.

Ohi denez, eskubaloi elkarteok enberrifak erosten dituzten herritarrak eta zozketan parte hartzen duten jatetxeak eskertu nahi dituzte.



ANA MERINOK KOADRILA EDERRA  
BILDU ZUEN ARGAZKIRAKO!

### Bazkideza kanpaina Zubietako pilota elkartean

**B**azkide egiteko kanpaina Abiarazi du Zubietako Pilota Elkarteak. Bazkideza-kuotak hauek dira: umeak, 6 euro; helduak, 36 euro. Bazkide egiteko, bidali mezua hurrengo helbidera [mgbengo@euskalnet.net](mailto:mgbengo@euskalnet.net) edo elkarteke edozein kiderekin harremanetan jarri.



### Futboleko zozketan, Andoni Irastorza irabazle

**U**rtarrilaren 23an, Haranen Bazkide arteko zozketajokoa egin zen. Bazkide guztien artean eginiko zozketa baten ondorioz, lau pertsona hurbildu ziren Haraneko zelai erdira. Bertatik gola egitea zuten helburu.

Benta Tabernak eskainitako oilasko-erre eder batzuk eraman zituen irabazle suertatu zen Andoni Irastorza bazkideak.



ANDONI IRASTORZA IZAN ZEN  
GARAILE BAZKIDE ARTEKO ZOZKETAN.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

**txirriStra**  
KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**



## 2. Territorialeko eskubaloi taldea, maila igoeratik gertu

**M**ailaz igotzeak borobilduko luke eskubaloiko senior talde honen denboraldia. Urteko erronka dena eskura izateko borroka betean dira, beterano eta mailaz igotako gazteak. Euren artean duten giro ona eta lanerako grina lagungarri suertatuko zaie bidean, Antonio Kastro entrenatzaileak aipatzen duenez.

**NOAUA! Aurkeztuiezaguzu taldea.**

**Antonio Kastro.** Hemezortzi gara, orain hamazazpi jokalaria, bat lesionatua baitago denboraldi hasieratik. Bigarren territorial mailan gaude. Aurtengoan, saiatuko gara ahalik eta lan onena egiten, hor goian egoteko. Asteburuko bi partidak irabazten baditugu, bigarren edo hirugarren postuan sailka gintezke. Eta hala, lehen mailara igotzeko aukera izango genuke.

### ANTONIO KASTRO

“Beteranoak eta gazteagoak, denon artean ondo moldatzen gara”

**N. Denboraldiko zuen helburua beraz, lehen maila da?**

**A. K.** Saiatu nahi genuke behintzat, ahalik eta lan onena eginda.

**N. Tarte nahikoa ba al duzue erronka errealtate bihurtzeko?**

**A. K.** Oraindik bigarren itzuli osoa dugu. Eta nik uste, aukerak izan baditugula.

**N. Zer moduz ikusten duzu taldea?**

**A. K.** Gazteak, lauzpabost beteranoekin bildu dira. Haien artean ondo moldatzen dira, jende oso jatorra da. Eta giro



**PARTIDA BAT GUTXIAGO JOKATUTA, BOSGARREN POSTUAN DAUDE. BAINA SAILKAPEN BURUTIK OSO GERTU.**

ona dago. Urte asko daramatzat lan hauetan. Denboraldi hoberenetakoa da hau, giroari eta kirolarien parte hartzeari dagokionean.

**N. Zein da orain arte buruhauste gehien eragin dizuen taldea?**

**A. K.** Sailkapeneko lehen postuan dagoen Rotula Estudio (Ordizia) taldea. Partida guztiak irabazi dituzte, gutxienez zortzi puntuko tartearekin gainera. Guk halere, 35-34 galdu genuen haien aurka. Partida ikusgarria izan zen. Irabaz genezakeen beste taldea, sailkapenean bigarren postuan dagoena da; Tolosa. Irabazten gindoazen bi puntuko tartearekin, baina bost lesionatu tarteko, azkenean neurketa galdu egin genuen. Lesioengatik izan ez bazen, gaur egun, bigarren postuaren bueltan sailkatuta egongo ginen.

**N. Denboraldi on baterako zuen errezeta...**

**A. K.** Asko entrenatzea, topera entrenatzea eta sakrifizioa. Entrenamendu

saiorik gabe ez baitago ezer. Eta noski, entrenamendu saioetara gogotsu etortzea. Erronka lortzen ari gara.

**N. Amaitzeko, taldearentzat mezua.**

**A. K.** Orain arte bezala segi dezala borrokan, sakrifikatzen.

### Judo taldea

#### Espainiako Txapelketan

**L**eganesen jokatu zen senior mailako Espainiako Txapelketan, Usurbil Judo Klubak zilarrezko domina bat eskuratu zuen. Maier Uriarte judoka izan zen aipatu dominarekin etxeratu dena.

Berarekin batera, klubeko beste bederatz kirolari joan ziren Leganesen ospatu zen txapelketara: Andoni Aizpurua, Ibai Peña, Aitzol Arrospide, Xabier Urkizu, Nerea Sanz, Eneritz Agoues, Aiora Arrillaga, Nerea Arruti eta Jessica Romero.




**INAUTERIAK 2010**  
OTSAILAK 13, LARUNBATA  
**IRATXO** INAUTERI FESTA IRATXON  
TABERNA **KOPAK, MUSIKA...**  
bordaberri 5, USURBIL 943 36 91 35

Solariuma **L'ORÉAL**  
PROFESSIONNEL  
**Izoli Lizarralde**  
• Ilkapaindegia • Estetika Zentroa  
Zubiaurrenea, 5-B ☎943 361 971

# Letra zopa

Kaixo, LH1eko ikasleak gara, eta ingelesean gorputz-atalen letra zopa hau egin dugu, ea zuk ere aurkitzen dituzun!

K C R Z I V X G C K S E  
 J D N D F A C E G W X M  
 W N G I H P H Y L Z G O  
 E J I V J R R G X T R U  
 Q E Y A U M E B I C X T  
 W I A F D Y N B J M I H  
 O W R R K G I C N G V E  
 N X T F E R F J S O M P  
 K O V V Y O T I Q D V Y  
 R S S P E C T E E T H Z  
 Y E M E E A R B U X T A  
 H L O F O O T T L E G B



## Zumarteko ikasleak, Andoaingo Piano Jaialdian

**A**steburu honetan, Andoaingo Piano Jaialdia ospatuko da Bastero Kulturgunean eta Zumarteko zenbait ikaslek hartuko dute parte.

Aizpea Reveriego Garcia, piano bakarleri mailan, A kategorian (11 urte arte). Igandean, Basteroko Ekitaldi Aretoan 11:45ean.

Maria Elozegi Azurmendi eta Iñigo Puldain Zaldua, piano lau eskutara mailan, A kategorian. Igandean,

Basteroko Auditorioan 9:30ean.

Ainhoa Azpiroz Iztueta eta Maialen Iñarra Arregi, piano lau eskutara mailan, C kategorian (18 urte arte). Igandean, Basteroko Auditorioan 9:30ean.

**Bilera ostiral honetan**

Ostiral honetan, otsailak 5, arratsaldeko 19:00etan Zumarteko ganbaran bilera bat deitu da 25. urteurreneko ekitaldi nagusian (ekainak 12) parte



PIANO JAIALDIA ASTEBURU HONETAN EGINGO DA BASTERO KULTURGUNEAN.

hartu nahi duten ikasle ohiekin eta gaurkoekin.

KALITATEKO  
**EUSKAL OKELA**  
  
 CAFÉ DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAÍS VASCO  
**Beheko kalea, 4**  
 Telf: 943 36 57 42

**ALKORTA**  
**AUTOZERBITZUA**

**Frutak**  
**Barazkiak**  
**Etxeko produktuak**  
**Izoztuak**

**LATAILLADE**  
  
**ITURGINTZA**

**GASA**  
**BEROKUNTZA**  
**MANTENIMENDUA ETA**  
**KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



## Agenda !

### Otsailak 4 osteguna

- Santa Ageda kantu-eskea.

15:00 LH ikasleen kalejira, 16:00 HH ikasleen kalejira. Ondoren, frontoian elkarrekin kantuan.

18:30ean Zubietan eta iluntzean, Usurbilgo kaxkoan.

### Otsailak 7 igandea

- "Euriaren seme alabak".

17:00etan Sutegin.

### Otsailak 9 asteartea

- Gure Pakeako puntu txapelketa Artzabalen 16:00etan. Otsailaren 5a baino lehen eman behar da izena.

## Goardiako farmaziak

### Otsailak 4, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

### Otsailak 5, ostirala

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

### Otsailak 6, larunbata

Iturralde, BORDABERRI 1 Usurbil

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

### Otsailak 7, igandea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

### Otsailak 8, astelehena

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

### Otsailak 9, asteartea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

### Otsailak 10, asteazkena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

### Otsailak 11, osteguna

Gil, Nagusia 24 Lasarte

### Otsailak 12, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

### Otsailak 13, larunbata

Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

### Otsailak 14, igandea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

### GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Chucla farmazia (22:00-09:00),

Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)

\*Usurbilen, soilik eguerdira arte

## "Euriaren seme-alabak", igandean euskarazko filmea Sutegin

Herri biren arteko gatazka du Hoinarri "Euriaren seme-alabak" pelikulak. Marrazki bizidunak dira protagonista eta, funtsean, abentura eta akziozko filma da. Zuzendariaren esanetan, "Euriaren seme-alabak" kultur aniztasuna eta tolerantziaren aldeko pelikula da.



8-14 URTEKO GAZTEENTZAT EGOKIA DA PELIKULA HAU.

Igande honetan, otsailak 7, arratsaldeko 17:00etan hasiko da pelikula; 8-14 urteko gaztetxoentzat egokia den filma.

Sarrerak ez dira aldeztu aurretik salduko. Egunean bertan jarriko dira salgai Sutegin, 2 eurotan.

ANTOLATZAILEA: Udala.

Nori zuzendua: 8-14 urtekoiei.

SARRERAK: egunean bertan, 2 euro.

NOIZ: otsailak 7 igandea,

17:00etan Sutegin.

## Pilota partidak

Otsailak 5 ostirala, 20:00etan Usurbil

UDABERRI TXAPELKETA

Jubenilak 2. maila

USURBIL - ATAUN

(Imanol Zinkunegi - Julen Gesalaga)

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Nagusiak banaka

USURBIL - LEMOA

(Ander Domingez) (Arrese)

Otsailak 7 igandea, 11:30ean Usurbil

UDABERRI TXAPELKETA

Jubenilak 1. maila

USURBIL - LAZKAO

(G. Mendizabal - M. Galarraga)

Nagusiak 1. maila

USURBIL 2 - OIARTZUN

(Jabier Santxo - Julen Urruzola)

## Atez aterren aldeko bilgunearen bilera

Atez atearen aldeko eragileen bilguneak bilera irekia antolatzen du ostiral honetarako Artzabal aretoan. Eragileen bilgune honetan Zubieta Lantzen, Usurbil Bizirik, Alkartasuna kooperatiba eta Jarraipen Batzordea daude ordezkatuta.

**Eguna:** otsailak 5 ostirala.

**Ordua:** 19:30.

**Lekua:** Artzabalgo aretoa, Lehen solairua.

**Gaia:** Kanpainaren aurkezpena eta parte hartzeko aukera zabala.

**BENTA  
TABERNA**

**Oilasko erreak  
Ogitartekoak**

San Ignacio 1, behea  
USURBIL 943 36 93 05

**ERRAZKIN  
Igeltseritza S.L.**

Tel.: 649 435 470  
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.  
20170 USURBIL

**Patri Jatetxea**

K./nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

### ETXEBIZITZA

- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometro-tara. 2 logela, egongela tximenarekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berriua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke. Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenesa 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berriua. Bikote batentzat egokia. 657708866

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Beheko Kale Atxegalden lokal bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 645736726 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat aloka-

- tzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabilo bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxu kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazprietatik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

#### Lan-eskaintzak

- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Emakume bat (paperak ditu) eskaintzen da pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. 618128461 / 943575788.
- Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntza lanak, garbiketak eta baserri lanetan aritzeko. 677593772
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketara lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut,

- edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Logelako armairu bat daukat salgai. Lau ateko armairua, bi urte diru eta egoera oso onean dago. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. Interesatuak deitu 609099824 telefonora.
- Urtarrilak 6an harribitxiak zituen urrezko eraztun bat galdu nuen Eliza eta Kaffa kafeteri artean. Norbaitek aurkitu badu eskertu nuke telefono honetara deitzea 943365631.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaia, kafe-makina,... 607 389 570 (Miria). istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaiaberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925



**Aupa Jokin!** Iaz ez bezala, aurtengoan garaiz ibili gaituk hire urtebetetzearekin gogoratzeko. Borrokaldiaren erdian harrapatu hau gainera. Unearen gogortasuna goxatzeko itxaropenez, honatx gure besarkadarik beroena!



printzesari familikoek eta lagun guztiek.

**Zoriona Nahia!!** Zuk ere otsailaren 6an egingo dituzu 6 urte eta txokolatzeko muxuak bidaltzen dizkiogu etxeko



**Zorionak Ianire!** Otsailaren 8an egingo dituzu 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat Oihan eta etxeko guztien partez. Ondo pasa!



**Zorionak Mikel!** Gure mutil indartsuak bost urte betetzen ditu Santa Ageda bezperan eta etxeko guztion partez infinitu muxu bidaltzen dizkizugu!

### JAIOTZAK

**Josu Altadill Yuste**  
Urtarrilaren 20an

**Aimar Zudaire Borrezo**  
Urtarrilaren 21ean

**ARRANDEGIA PELLO**  
Puntapax Kalea, 7  
TIF 36 21 64  
USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

**Josue**  
Igeltseritza:  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Olandegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**



# AGINAGAKO Herri Eskola

## Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Doako garraioa behar dutenentzat.

• Jantoki zerbitzua.

• Eskola orduz kanpoko ekintza ugari: ludoteka, liburutegia, larunbatetako txokoak, udalekuak...



Usurbilgo Udala



### AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

**Izena emateko epea: Otsailaren 1etik 12ra.**

# ZORIONAK

## USURBILGO HERRIARI

*egin dezagun osasunaren eta ingurumenaren aldeko urrats berria*



**herri kontsulta** otsailak 27 eta 28an



Usurbilgo Udala